



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**OGASUNA, BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA, SUSTAPEN
EKONOMIKOA ETA MERKATARITZAKO BATZORDE INFORMATIBOAK AURKEZTEN DUEN
IRIZPENA**

**AZKOITIKO UDALEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO 2017rako
PROGRAMA-ENPLEGU PLANA – 1. FASEA**

1. AURREKARIAK

1.1. Azkoitiko Udalak 2016ko abenduaren 28ko Osoko Bilkuran hasierako onarpena eman zion 2017eko ekitaldirako Aurrekontuari. 2003ko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 15. artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrera azaldu zen hamabost egunetan, epealdi horretan erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Jendaurreko informazio-epealdi horretan alegaziorik aurkeztu ez zenez, behin betikotzat jo zen Aurrekontu Orokorra, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017ko otsailaren 16an (33. zk.an) eta, halaber, Udaletxeko iragarki-oholean, web orrian eta *Gipuzkoako Atarian*.

Aipatu espedienteak, besteak beste, Udal Langileen Aurrekontu-Plantila zeukan bere barnean, non 2017ko ekitaldian aurreikusitako pertsonalaren gastua justifikatu bait zen.

1.2. Udal honek, 2005ean buruturiko berrantolakuntzako prozesuaren ondoren, Herritarren Harrera Bulegoa ireki zuen, herritarrekiko zerbitzu nagusiak zentralizatzeko asmoarekin. Horren ondorioz, Herritarren Harrera Zerbitzuak izapide ugari burutzen ditu: espedienteak (biztanleen errolda, ezkontzak, azoka postuen esleipena, jaietako postuak, ...), dokumentuen sarrera eta irteera, beste administrazioetarako izapideak, kontsultak, informazio-eskaerak, kexak, etab.

1.3. Azkeneko urte hauetan, hazkunde nabarmena izan du Azkoitiko udalerriak, bai demografiari dagokionez (11.500 biztanle inguru gehiago ditu herriak), bai egitura fisikoari dagokionez ere: hiri-esparrua zabaldu egin da, bizitegi-auzo berriak eta industriagune berriak gehitu zaizkio hiri sareari, dagozkien urbanizazio publikoekin. Era berean, lehendik zeuden hiriguneak eraberritzeko eta hobetzeko esku-hartze handiak egin dira, 2005eko urtarrilaren 25eko 17/2005 Dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzak Azkoitiko Hirigune Historikoa, *Monumentu Multzo* kategoriarekin, Kultura Ondasun gisa kalifikatu izanaren ondorioz. Azkenik, espazio libreak, ekipamendu publikorako jarritako eraikinak eta aire zabaleko instalazioak, hiri-bidetarako destinatutako espazioak ere asko hazi dira adierazitako epealdi horretan.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Horrek denak ekarri duen lehenengo ondorioa izan da Udalak, Udaleko Obra Brigadaren bitartez, zerbitzu gehiago eman behar izan duela –tokiko entitateak nahitaez eman beharreko zerbitzuak baitira– eta gainera zerbitzuen kalitatea hobetu behar izan duela: berdeguneak eta hiri-lorategiak kontserbatzea, hiri-altzariak osatzen dituzten elementuak mantentzea, kontserbatzea eta ordezea, bide publikoak eta espaloiak mantentzea eta konpontzea, argiteria publikoa, jaietako, kiroletako eta kulturako ekitaldietarako azpiegiturak prestatzea, industriaguneei zerbitzua ematea, landa-bideak garbitzea eta konponketa txikiak egitea, udal-eraikinak eta –instalazioak mantentzea, azpiegitura-sareak...

Bestaldetik, 50 urte baino gehiago duten etxebizitza-eraikuntzen kasuan Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak xedatzen dituen ikertzeko beharrak, eta hainbat obra eta jarduerak egikaritzeko prozeduretan izandako aldaketek (aurretiazko jakinarazpenak, ardurapeko aitortpenak...) lan esparru berriak sorrarazi dituzte Bulego Teknikoan.

Egoera honen aurrean, eta lehenengo neurri gisa, Azkoitiko udalbatza plenoak, 2015eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, *Giza Balizabideak arrazionalizatzeko 2015erako plana* deituriko dokumentua onartu zuen, non, beste batzuen artean, ondoko neurria onartu bait zen:

“Hiru lanpostu berri sortzea Lanpostuen Zerrendan, lan-kontratukoak, Ofizialaren kategoriari parekatuak: Bi lanpostu makinista/zerbitzu anitzeko ofizialenak eta lanpostu bat soldatzaile/zerbitzu anitzeko ofizialarena, ezaugarri hauekin:

- Atxikitako saila: Hirigintza eta Garapen Jasangarria
- Dedikazio-erregimena: %100 eta 3. graduako prestasuna.
- Esleitutako hizkuntz eskakizuna: 2.a behin-behinean.
- Eskatutako titulazioa: LH1 edo balio berekoa.
- Lan-kategoria: Ofiziala
- Ordainsaria (behin-behinekoa): UDALHITzen 9. mailaren parekoa. Behin betiko balorazioa egiteko zain.”

Hala ere, onarturiko neurriek Plangintzaren 1. fasea osatu zuten, eta udal korporazioak hurrengo faseetarako utzi zituen gainontzeko zereginak, horien artean Lantaldearen eta Bulego Teknikoaren berrantolakuntza.

1.4. Ikusirik herriko eremu publikoetan zein hostalaritzako hainbat lokal pribatuetan burutzen diren aisialdi-jarduerak eta haien eragina gainontzeko biztanleriarengan, udal korporazioa hausnarketa prozesu bat garatzen ari da bi helburu nagusiekin: aisialdi jardueretarako eta herritarren atsedenerako eskubideen artean oreka bat bermatzea, batez ere bizitegi eremuetan, eta gazteekiko prebentzio politikak sustatzea. Aurreneko helburua lortzearren, Ordenantza bat izapidetu eta onartuko da, eta horrekin batera, udaleko Sail ezberdinetan neurriak hartu behar dira aipatu Ordenantzaren ezarpenerako.



2. EGOERAREN DIAGNOSIA ETA ARAZO NAGUSIAK

2.1. Herritarren Harrerarako Bulegoaren funtzionamenduan zehar, ondorengo arazo hauek detektatu dira:

- Une honetan, udalean burutzen diren izapide guztiak ez daude jasota eskuliburu eguneratu batean. Lan hau datozen hilabeteetan gauzatuko da, eta amaitzen denean, ezinbesteko lan tresna izango da Departamentu guztiontzako, eta bereziki, Harrera Bulegorako.
- Espediente edo izapide batzuetan Irizpideak finkatu behar dira Departamentuen zereginak eta Herritarren Harrerako Bulegoaren zereginak bereizteko, halaber, haien arteko koordinazioa hobetzeko.

Bestaldetik, administrazio elektronikoaren aurrerapenari erantzun behar dio udal honek, Herri Administrazioetako Administrazio-Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legea indarrean sartu ondoren, bereziki honako arlo hauek garatuz:

- Erregistro Elektronikoa eta Ordezkarien Errregistroa prestatu behar dira, Legeak xedatzen dituen baldintzak bete ahal izateko.
- Izapide elektronikoetan herritarrei laguntza emateko gaitasuna eduki behar dute Erregistroko langileek, herritarrek aurkezten dituzten eskaerak elektronikoki sinatu ahal ditzaten, fedea emanez.
- Erregistroko eta orokorrean, herritarren eskaerak bideratzen dituzten bulegoetako langileen gaitasuna eta prestakuntza landu behar dira, 39/2015 Legeak xedatzen dituen baldintzak ikusita (funtzionario gaituak izan behar dute).

2.2. 2015eko Enplegu Plana gauzatu ondoren, udal lantaldea indartu zen, zerbitzuen hazkuntzari erantzun ahal izateko. Hala ere, arazo batzuei irteera eman behar zaie:

- Udalaren lantaldearen biltegiaren kudeaketa antolatu eta arrazionalizatu behar da: biltegi antolatu bat eduki behar da, dagokion programa informatikoaz baliatuz, erosketak aurretik programatu eta kudeatu behar dira, norbaitek eduki behar du biltegiaren ardura eta kontrola egunerokotasunean....
- Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen araudiaren irizpideak txertatu behar dira lantaldeko erosketa arruntetako prozeduran.
- Azken hilabete hauetan, lantaldearen zereginak programatu dira: astero, lan programa bat finkatzen da, eta horren arabera antolatzen dira giza baliabideak eta baliabide materialak. Izaera iraunkorra eman behar zaio antolakuntza honi.

2.3. Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumenaren Bulegoko hainbat teknikarien artean antolatu den lan banaketa zehaztu behar da. Zereginen eskuliburuan jasota dauden lanak oso orokorrak dira, eta ez dira egokitu azken urten hauetan izan diren lege-aldaketekin, adibidez aurretiazko jakinarazpenak edota eraikinen azterketa teknikoak, eraikinen ikerketak....



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2.4. Udaltzaingoaren eta Jakinarazlearen lanari dagokionez, hona hemen Plangintza honetan aztertu diren arazo nagusiak:

- 2017ko ekainean, jakinarazle lanak burutzen dituen udaltzaina (2. jardueran) jubilatuko da. Erabaki behar da egoera honen aurrean zer egin.
- Dokumentu honen aurrekarietan azaldutako diagnostikoa ontzat hartuta, udal gobernua Udaltzaingoaren zerbitzua indartzeko beharra ikusi du: asteburu gauetan agenteen kopurua igo nahi da, gainontzeko jai-bezperreetan gaueko zerbitzua ezarri da, agenteen zereginak gero eta ugariagoak dira..... Egoera honen aurrean bi behar nagusi detektatu dira: baliabide pertsonalen falta, eta pertsonalaren formakuntzaren beharra.
- Halaber, ikuskizun publikoak edota aisialdi jarduerak arautzen dituen legeria zein Ordenantza urratzeagatik (*IKUSKIZUN PUBLIKOAK, NOIZBEHINKAKO AISIALDI JARDUERAK ETA AISIALDI ERABILEREN ZEIN EGOITZA IZAERAKO ERABILEREN ARTEKO BIZIKIDETZA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAtik*) irekiko diren espedienteen izapidetzea Udaltzaingoak burutu beharko ditu, eta baliabide pertsonalak behar ditu aipatu zereginak betetzeko.
- Azkenik, nahiz eta lau agente lanpostu betetzeko jardunbidea ia amaituta eduki, oraindik ere interinitate-tasa arazo handia da gaur egunean Azkoitiko udaltzaingoan.

3. DOKUMENTAZIOA

Espediente honetan ondoko dokumentazioa dago:

- Udaltzaingoaren Arduradunaren txostena, aipatu Departamentuan dauden zereginak eta pertsonal berriaren beharrak justifikatuz.
- Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko Arduradunaren txostena, diktamen honetan jasotzen diren neurriak eta haien justifikazioa azalduz.
- Kulturako Departamentuko Arduradunaren txostena, Udal Bibliotekan dauden pertsonalaren beharrak justifikatuz.
- Udal Idazkariaren txostena, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programan proposatzen diren neurrien eta indarrean dagoen legeriaren arteko egokitasuna aztertuz.
- Udal Kontuhartzailearen txostena.
- Azkoitiko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2017ko Programaren 1. fasea jasotzen duen dokumentua, bere eranskinekin:
 - Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako, eta Ingurumeneko Departamentuko Organigrama berria..
 - Aipatu Departamentuko hainbat lanpostuen zereginak jasotzen dituen dokumentazioa: Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Teknikaria, Obretako Aparejadorea, udal Aparejadoreak, Brigadako Arduraduna, eta Biltegiko Arduraduna.
 - 2017ko Lanpostuen Zerranda eta Udaleko Langileen Plantila.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

4. XEDEA

Plangintza honen xedea da, Azkoitiko Udalaren giza-baliabideen optimizazioa helburu duten bitartekoak eta neurriak onartzea, oinarritzat duen arrazoiaren azalpenean biltzen diren jarraibideen arabera.

Programa honen bidez, Udaleko lanpostuen balorazioa, funtzioen katalogoa eta organigrama, eta hauen eguneratzeak lortutako konpromisoak gauzatu nahi dira, zehatz esanda, epe erdi-luzera begirako antolamendu eta estrategia-ereduaren barruan adostutako gomendio teknikoak.

5. PLANAREN HELBURU NAGUSIAK

Egoera honen aurrean, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa honen helburu nagusiak ondoko hauek dira:

- **Herritarrei ematen zaien arreta zuzena hobetzea**
- **Administrazio elektronikoaren garapena indartzea**
- **Udal lantaldearen antolakuntza hobetzea**
- **Udal erosketetan Sektore Publikoko Kontratuen Legeariaren irizpideak txertatzea.**
- **Bulego Teknikoaren funtzionamendua hobetzea**
- **Herritarren segurtasuna indartzea, eta aisialdirako eta atsedenerako eskubideen arteko oreka bermatzea**
- **Baliabide Pertsonalen beharrei erantzutea eta Plantila arrazionalizatzea.**

6. JARDUKETA-ESPARRUAK

Azkoitiko Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa, ondoko zerbitzu hauei eragingo die:

- Herritarrei arreta eta administrazio elektronikoaren garapena: Herritarren Harrera Bulegoa, eta Gizarte Zerbitzuetako zerbitzuko harrera.
- Zerbitzu Teknikoen berrantolakuntza: Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, eta Ingurumeneko Departamentua.
- Lantaldearen biltegiaren berrantolakuntza eta erosketen arrazionalizazioa: Udaleko Brigada, eta Bulego Teknikoa.
- Herritarren segurtasuna eta aisialdi eta atsedenerako eskubideen arteko oreka: Udaltzaingoa.
- Baliabide Pertsonaren beharrei erantzutea eta Plantila arrazionalizatzea: Udaltzaingoa, Jakinarazlea, eta Liburutegiko zerbitzuak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

7. EKINTZAK

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa honek ondorengo ekintzak burutzea aurreikusi du:

7.1 Herritarren Harrera Bulegoan eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan:

- Herritarren Arretako zerbitzua ematen duten lan izaerako langileak funtzionarizatzea, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen Bigarren Xedapen Iragankorrean eta Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen Seigarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoaren arabera.
- Azkoitiko udaleko Lanpostuen Zerrendan eta Langileen Plantilan beharrezkoak diren aldaketak gauzatzeko, honako hauek xedatuz:
 - Herritarren Harrerako Bulegoan bi lanpostu (BAZko espedienteen kudeaketa eta Prozedurak Koordinatzeko Administraria eta Biztanleriaren harrera zerbitzuko administraria), eta Gizarte Politika administraria lanpostu bat sortu (3), funtzionario izaeraz.
 - Herritarren Harrerako Bulegoko bi lanpostu (BAZko espedienteen kudeaketa eta Prozedurak Koordinatzeko Administraria eta Biztanleriaren harrera zerbitzuko administraria), eta eta Gizarte Politika administrariaren lanpostu bat amortizatu (3), lan izerakoak, aurrekoak hornitzen direnean.
 - Lanpostuak hornitzeko jardunbidea burutzea: Barne Sustapena, funtzionarizazioa.
 - Lanpostuaren zereginak/ezaugarriak/ordainsariak finkatzea: gaur egun dauden berdinak. Hala ere, puntu hau berraztertuko da Izapideen Eskuliburua eta Prozesuak jasoko dituen dokumentua lantzen direnean, eta Herritarren Harrera Bulegoaren Berrantolaketa garatzen denean.
- Funtzionarizazio prozesua abian jartzea: Lanpostu hauen hornikuntza 2017ko Lan Eskaintza Publikoan sartuko da, eta segidan barne sustapeneko hautaketa-jardunbidea garatuko da.

7.2 Bulego Teknikoan:

- Departamentuko antolakuntza jasotzen duen Organigrama berria onartzea (1. eranskina)
- Zerbitzu eta Ingurumeneko Teknikaria (1), Obretako Aparejadorea (1), Udal Aparejadoreak (2), eta Lantaldeko Arduraduna (1) lanpostuen zereginak zehaztu eta berrantolatzea (2. eranskina). Lanpostu hauen balorazioa Planaren 2. fasean burutuko da.
- Biltegiko Arduraduna/Zeregin Anitzetako ofiziala (1) lanpostua sortzea, ondoko ezaugarriekin:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Administrazio Bereziko Eskala
- Ofizioetako langilea: Biltegiko Arduraduna/Zeregin Anitzetako Ofiziala
- Taldea: C1
- Destino Osagarria: Baloratzeko Planaren 2. fasean
- Berariazko Osagarria: Baloratzeko Planaren 2. fasean
- Lanaldia: %100a
- Aipatu lanpostua hornitzeko jardunbidea garatzea, lehiaketa-oposaketa librez.
- Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, eta Ingurumenek Departamentuko Arduradunaren lanpostua hornitzeko jardunbidea garatzea, barne sustapenez.
- Udal Lantaldearen zereginen azterketa eta lanpostuen balorazioa: Planaren 2. fasean.

7.3. Udaltzaingoa eta Jakinarale Zerbitzuan:

- Jakinarazlearen lanpostua amortizatzea.
- Udaltzaingoa Agente/Jakinarazle lanpostua sortzea.
- Lan administratiboak dituen Agentearen lanpostuaren zereginetan, ondoko hau txertatzea: *Agente/Jakinarazleari laguntza ematea, eta hura ordezkatzeko, beharrezkoa denean.*
- Bigarren jarduerari atxikituriko Agente lanpostua deslotzea, eta Udaltzain Agente gisa sailkatzea.

7.4. Udal Liburutegian:

- Liburutegiko Arduradunaren lanpostua barne sustapenez hornitzea, eta 2017ko lan eskaintza publikoan sartzea.
- Liburutegiko laguntzaile lanpostua %50eko jardunarekin mantentzea, Arduradunaren Lanpostua barne sustapenez hornitu ondoren

8. IRAUPENA

Programa honen indarraldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik bertan aurreikusitako neurriak amaitu artekoa izango da,

Era orientatiboan, Programan aurreikusitako neurriak ezartzeko 18 hilabeteko epea aurreikusi da. Zehazki, ondorengo hauek burutu behar dira:

- Programa, udaleko Lanpostuen Zerrenda eta Langileen Plantila onartzea: 1 hilabete
- Lan eskaintza publikoa onartzea: hilabete 1



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Pertsonalari eragiten dizkioten barne sustapeneko jardunbideak burutzea: 8 hilabete (funtzionariozazioak, eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumen Departamentuko Arduradunaren lanpostua hornitzea).
- Aurreikusten diren lanpostu berriak txanda librez hornitzea (Udaltzainak, Biltegiko Arduraduna), eta Liburutegiko Arduradunaren lanpostua barne sustapenez hornitzea: 8 hilabete. Hala ere, beharrezkoak izanez gero, lanpostu hauek interinoki hornitu ahal izango dira, Enplegu Publikoa arautzen duen legeriak xedaturiko printzpioak errespetatuz (publizitatea, meritua, gaitasuna, berdintasuna), eta Enplegatu Publikoen Estatutuaren 61. artikuluan aurreikusitako gehieneko epeaz.

Azkoitiko Udaleko Ogasuna, Barne Antolakuntza, Pertsonala, Kontratazioa, Sustapen Ekonomikoa eta Merkataritzako Batzorde Informatiboak irizpen hau aztertu zuen 2017ko matxoaren 16an egindako bilkuran, eta martxoaren 23an egindako bilkuran irizpenaren bozketa gauzatu zen, bozketaren emaitza ondorengoa izan zelarik:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia, Javier Zubizarreta, Miguel Angel Bastida, Sonia Vazquez, Gaizka Larrañaga, eta Janire Igoa.

Aurreko guztia kontuan izanda, organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Ogasuna, Barne Antolakuntza, Pertsonala, Kontratazioa, Sustapen Ekonomikoa eta Merkataritzako Batzorde Informatiboak, aho batez:

IRIZPENA

LEHENENGO.- Azkoitiko Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2017ko Programaren 1. fasea onartzea, irizpen honetan eta bere eranskinetan jasotakoaren arabera.

BIGARREN.- Aipatu dokumentuak eragindako aldaketak jasotzen dituzten Lanpostuen Zerrenda eta Langileen Plantilla onartzea.

HIRUGARREN.- Onarpen-erabaki hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko iragarki-oholean, udalaren webgunean eta *Gipuzkoako Atarian*, eta jendaurrean azaltzea 15 eguneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LAUGARREN.- Ebazpen hauek jakinaraztea Azkoitiko Udaleko Sailen Arduradunei, eragindako langileei eta udaleko langileen ordezkariiei.

Azkoitia, 2017ko martxoak 24
Begoña Garmendia Vazquez
Udal Idazkaria